Construcciones URRUTIA, s.a.

AENOR
Empresa Registrada
ER-1326/2/99

# Kalitate-sistema ezartzea



Construcciones URRUTIA, S.A.k bere jarduera banakako enpresa moduan 1939ko otsailaren 1ean hasi zuen Pedro José Urrutia Cornejo igeltseroaren eskutik. Igeltserotzako lan orokorrak egin ditu bereziki. Lan horietan bere etxebizitza sustapeneko eta kontratako obretan bolumena zabaldu du. 1945az geroztik nabarmen gehitu da beraren jarduera, baita makinak eta bitarteko lagungarriak ere. Hark bere eragiketetan goranzko erritmo horri jarraitu dio, bai kontratako eragiketetan bai sustapen bereziko obretan. Gaur egun, dagoen lan kopuruaren arabera, plantilan 30-50 langile du eta beraren urteko batezbesteko fakturazioa 600 milioi pezetakoa da.

Enpresak beti egin ditu sustapen publikoko eta sustapen pribatuko eraikuntza-obrak. 1967az geroztik enpresa Estatuko Obra kontratari bezala sailkatuta dago. Uneotan C taldearen barruko azpitalde guztietako sailkapena, F Kategoriakoa eta beste sailkapen txikiago batzuk ditu.

## Motibazioa

Construcciones URRUTIA, S.A.k ohikotasunez kontrolatu du materialen kalitatea, eta obraren betearazpena. Horretarako, bitarteko klasiko eta ia eskuz eginak baliatu ditu. 1995ean enpresak kontrolok arauz egiteko gogoa zuen eta orduan UNECA eta SEA elkarteek kalitate-sistema baten ezarpenean beste enpresa batzuekin batera parte hartzera gonbidatu gintuzten.

Beste arlo batzuetan eta beste herri batzuetan ezarritako sistemon gorakadaren aurrean, Zuzendaritzak egokitzat jo du gonbidapen hori onartzea, eta, horrela, 1996ko martxoan, LEIAren kanpo-laguntzaz ezarpen-prozesua hasi zuen, berau 1998ko martxoan bukatzeko asmoz.

Maria Villa berriro gaitzea, Arabako Abokatuen Elkargo Ofizialaren egoitza izateko

Rehabilitación de Villa María para sede del Colegio Oficial de Abogados de Álava

## Garapena

Kalitate-sistema ezarriz, enpresaren ekoizpen-sistema hobetu gura da eta detektatzen diren okerrak edo hobekuntza-arloak aurkitu eta zuzentzeko aukera izan.

Lan-plana hileroko bisiten bitartez garatu zen. Bisitotan LEIAren aholkularitza eta berbaldi batzuk jaso genituen. Enpresaren barruan lan horretaz arduratzeko pertsona bat kontratatu zen lansaio erdian, Kalitate Batzordea eratu zen eta, apurka-apurka, arloan oso errotuta zeuden ohitura batzuen kontra borrokatuz, kalitate-sistema ezartzen joan zen. Kalitate-sistema ezartze hori zen gure helburua.

Zailtasun nagusia datuak erregistratzea lortzeak ekarri zuen. Izan ere, obra-arduradunen artean idazteko ohitura urria zen, eta, bereziki, ordura arte ezkutatzen zirenak (hausturak, matxurak, lanak burutzen ari zireneko okerrak...) erregistratzekoa. Ez zen erraza izan errudunak bilatu beharrean elkarrekin hobetu beharra zegoela mentalizatzea ere.

## Emaitzak

Bi urte luzeren buruan, sistema guztiz ezarririk geneukan eta ISO 9002 Arauaren araberako ziurtapena lortzen ahalegindu ginen UNECA-SEAk bultzatuta eta hori herri lehiaketetan puntuatuko zutelakoan. Horrela, hasierako auditoretza urrian gainditu ostean, 1999ko abenduan, AENOR-ek ISO 9002 Arauaren arabera kalitate-sistemaren ziurtapena eman zigun.

Gaur egun, gure kudeaketa hobeari buruzko zenbakizko datu objektiboak ekartzen dizkiguten adierazkariak lortzen ari gara, baina ziurtasunez dakigu ezen denbora honetan kalitaterik ezaren kostuak nabarmen urritu direla.

Manuel Iradier 32, behea
Manuel Iradier 32, bajo
01005 VITORIA-GASTEIZ
Teléfono/a: 945 23 12 19
Fax/a: 945 13 06 62

# Implantación del Sistema de Calidad

Construcciones URRUTIA, S.A inicia su actividad como empresa individual el 1 de Febrero de 1.939 de manos de D. Pedro José Urrutia Cornejo, albañil, realizando principalmente trabajos de albañilería en general, en los que sucesivamente amplía el volumen en obras de contrata y propia promoción de viviendas. A partir de 1.945 incrementa considerablemente su actividad, con aumento de maquinaria y medios auxiliares, siguiendo este ritmo ascendente en sus operaciones, tanto a contrata como en obras de propia promoción. Actualmente, dependiendo del volumen de trabajo existente, tiene entre 30 y 50 trabajadores en plantilla y una facturación media anual de 600 millones de pesetas.

La empresa ha realizado siempre obras de edificación tanto de promoción pública como privada. Desde el año 1.967 la empresa está clasificada como Contratista de Obras del Estado, poseyendo en estos momentos la clasificación en todos los subgrupos del Grupo C, Categoría F y otras clasificaciones menores.

## Motivación

De una forma habitual, Construcciones URRUTIA, S.A venía realizando un control de calidad de los materiales y de la ejecución de la obra por medios clásicos y un tanto artesanos. En el año 1.995 la empresa se propone realizar estos controles de una forma sistemática y es entonces cuando desde UNECA-SEA se nos invita a participar junto con otras empresas en la implantación de un sistema de calidad.

Ante el auge de estos sistemas ya implantados en otras áreas y en otros países la Dirección cree oportuno aceptar esta invitación y así en Marzo de 1.996 comienza el proceso de implantación con la ayuda externa de LEIA C.D.T. con la idea de finalizarlo en Marzo de 1.998.

## Desarrollo

Con la implantación del sistema de Calidad se pretende mejorar el sistema productivo de la empresa así como poder localizar y corregir los distintos errores o áreas de mejora que se vayan detectando.

El plan de trabajo se desarrolló a través de unas visitas mensuales en las que recibíamos el asesoramiento de LEIA y algunas charlas específicas. Para encargarse de este trabajo dentro de la empresa se contrató una persona a media jornada, se formó el Comité de Calidad y poco a poco, peleando contra algunas costumbres muy arraigadas en el sector, se fue implantando el sistema de calidad, que era nuestro objetivo.



La principal dificultad, fue conseguir registrar los datos, pues la costumbre de escribir entre los encargados de obra era escasa, y en especial registrar aquello que hasta ahora tendía a ocultarse (roturas, averías, errores durante la ejecución de los trabajos...). Tampoco fue fácil mentalizarse de que no se trataba de buscar culpables sino de mejorar juntos.

## Resultados

Al cabo de dos años largos, teníamos el sistema totalmente implantado y nos propusimos certificarnos según la ISO 9002 animados por UNECA-SEA y por la posibilidad de que lo puntuaran en los concursos públicos. Así, tras superar la auditoría inicial en Octubre, en Diciembre de 1.999, AENOR nos concedió la certificación del sistema de calidad según la ISO 9002.

Actualmente, estamos consiguiendo indicadores que nos aporten datos numéricos objetivos de nuestra mejor gestión, pero sabemos con certeza que los costes de no-calidad han disminuido sensiblemente en este tiempo.